

Tolosatzen eskolak lehen ikasturteari emango dio hasiera

Abenduan ikusi zuen argia «herritartasun aktiboa eta herritarren ahalduntzea sustatzeko» abiarazitako ekimenak // 2

Zizurkilgo Udalak aurrekontua onartu du, ohiko gastuetako diru saila handituz

3.372.000 euroko aurrekontua izango du 2020an, iaz baino %4,2 gehiago; Bulandegi bidea berriztatzeko lanari ekingo dio aurten // 3

Proposamenak bidaltzeko aukera dute Irurako herritarrek

Irurako Udalak 30.000 euro gorde ditu, herritarrek proposatzen duten proiektura bideratzeko // 4

Euskal Eskola Publikoaren alde elkartu dira Alegiako eskolan

‘Euskal Eskola Publikoaz harro!’ lelopean martxan jarri den kanpainarekin bat egin dute ikasle, guraso eta irakasleek // 5



Ertzaintzaren presentziaren aurrean egin zuten elkarretaratzea Voith-eko langileek. ASIER IMAZ

Ekoizpena geldirik, Voith-eko lehen greba egunean

Atzo izan zuten Voith Paper SA enpresan lehen greba eguna, eta Ertzaintzaren presentziaren aurrean egin zuten elkarretaratzea; beste bost egunez jarraitzeko asmoa dute // 6



Betirako lotzea iraganeko kontua da.

Autowag Tolosa
Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi A3 Sportback gama. Erregai kontsumo konbinatua: 5,1 – 7,9 l / 100 km.
CO2 isurtze konbinatuak: 127-178 g/km (NEDC: 111-149 g/km)



Egitarau zabala osatu du Tolosatzen Eskola Irekiko talde motorrak

Ikasturteari hasiera emateko ekitaldi berezia martxoaren 12an izango da, 18:30ean, Zerkausian. Tailerrak, ikastaroak eta topaketak egingo dituzte, zazpi saiotan banatuta.

Josu Artutxa Dorronsoro

Abenduan ikusi zuen argia Tolosatzen Eskola Irekiaren proiektu pilotuak; herritartasun aktiboa eta herritarren ahalduntzea sustatzeko abiarazi zuen Tolosako Udalak. «Eskola hau nazioarteko proiektu baten baitan kokatzen da, eta Tolosa aukeratua izan da, esparru honetan bide bat egina duelako, eta proiektu honen baitan kokatu daitezkeen herri esperientziak nahiz herritar eta eragile inplikatu eta aktiboak ere badituelako», diote udaletik.

15-17 laguneko talde motorra osatu zuten urtarrilean, eta ordutik hona, ikasturteko egitaraua lantzen aritu dira, herritarrek gaitasun desberdinetan trebatzeko eta elkar ezagutza sustatu asmoz. «Proiektuak, beraz, elkarlana eta lankidetzeta ditu oinarri, udalaren, herritarren, herriko talde antolatuen eta eragile desberdinen arteko elkarrizketa eta elkarren arteko loturak sustatzeko helburuarekin».

Osatu duten egitaraua, hiru ardatz nagusitan banatzen da. «Batek, gure balio sistema indartzeko eta herritarrek alor desberdinetan ahalduntzeko bi tailer antolatu dira. Sendotze soziokomunitarioari begira, elkar ezagutza sustatu eta eragileen sarea indartzeko hiru topaketa ere egingo dira. Azkenik, udalerraren ezagutzari dagokionez, proiektuak nola prestatu eta diru-laguntzen eskaerak nola aurkeztu azaltzeko tailerra ere egingo da».

Maiatza bitarte iraungo du ikasturteak, eta ekainean balorazio bat egingo asmoa dute. Edo nola ere, aurtengo ikasturteari hasiera emateko, eta egitarauaren berri emateko, ekitaldi bere-



Abenduan sortu zuten Tolosatzen Eskola Irekiko talde motorra. TOLOSako UDALA

zia egingo dute, hilaren 12an, 18:30ean, Zerkausian. Umorea eta emozioak uztartuz, hitzaldia eskainiko du Virginia Imazek.

Udaletik herritarrek gonbidatu dituzte ikasturteko ekintza hauetan parte hartzera. Informazio gehiago jasotzeko, edota aipatutako saioetan izena emateko Udataera joan edota *governantza@tolosa.eus* helbidera idatzi behar da. Trebetasun sozialetarako tailerretan parte hartzeko, beharrezkoa da aurretik izena ematea, gehienez ere 20 lagunentzako saioak izango direlako. Urriaren 2020-2021 ikasturteko egitaraua lantzeari ekingo die, datozen urteetan ere martxan jarraitzea baita asmoa.

TOLOSATZEN

Martxoak 12, osteguna

18:30. Umorea eta emozioak. Ikasturteari hasiera emateko ekitaldia, Virginia Imazekin.

Martxoak 17, asteartea

17:30-20:00. Elkarrekin eta taldeen arteko topaketa, kultur etxeko areto nagusian.

Martxoak 24, asteartea

17:30-20:00. Elkarrekin eta taldeen arteko topaketa, udaletxeko pleno aretoan.

Apirilak 16, osteguna

16:00-20:00. Entzute aktiboari eta enpatziari buruzko tailerra (gehienez, 20 lagun), kultur etxean.

Apirilak 23, osteguna

16:00-20:00. Entzute aktiboari eta enpatziari buruzko tailerra (gehienez, 20 lagun), udaletxeko pleno aretoan.

Maiatzak 16, larunbata

9:00-13:00. Denboraren kudeaketa eta konpromisoari buruzko tailerra (gehienez 20 lagun), kultur etxeko areto nagusian.

Maiatzak 28, osteguna

16:00-20:00. Proiektuak nola prestatu eta diru-laguntzen eskaerak nola aurkeztu azaltzeko tailerra, kultur etxeko areto nagusian.

Maiatzak 30, larunbata

9:00-13:00. Denboraren kudeaketa eta konpromisoari buruzko saioa (gehienez, 20 lagun), kultur etxean.



Atzo egin zuten Mendi Tour jaiadiaren aurkezpena, Leidorren. ASIERIMAZ

Astelehenean ekingo dio Mendi Tour jaialdiak

Hamargarrenez hartuko du Leidorrek; 'Sartalderra' eta 'Uzturreko ezkutalekua' film laburrak sarituko dituzte

Erredakzioa Tolosa

Mendi Tourren 10. edizioa martxoaren 9an, 10ean eta 11n izango da, Tolosako Leidor aretoan. Bertan mendiari buruzko filmak ikusiko dira, eta aurkezpen ekitaldian azaldu dutenez, ez dira nolana hikoak izango. «Bilboko Mendi Film zinemaldiko pelikula onenak erakusten ditugu. Azken edizioko sarituen maila bikaina izan da, beraz, Tolosako Mendi Tourrak osagarri ezin hobeak izango ditu». Mendi Tourren 10. ediziorako sarrerak dagoeneko salgai daude Leidorren. Iaz, 1.600 ikusle izan ziren, eguneko 500 ikusletik gora. Filmak jatorrizko bertsioan eskaintzen dira, azpigituluen laguntzarekin, eta saioak, Mendi Filmeko ordezkariak aurkeztuko dituzte.

Mendi Tourren harira, Tolosako Udalak film laburren lehiaketa antolatzen du, mendia ardatz hartuta. Aurten, zortzi lan aur-

keztu dituzte eta Sari Nagusia *Sartalderra* lanarentzat izan da. Alex Areizaga zuzendaria Leidorren izan da saria jasotzen, eta azaldu duenez, «maitasun historia baten kontaketa da». Epaimahaiaren arabera, «gaia originala da, kontatzeko era ausarta eta edizio aldetik txukuna. Lokuzioak eta musika hautaketarekin oso ondo asmatu du. Lan txukun eta orekatua da».

Tolosaldeko egiletzadun lan onenaren saria, berriz, Iñaki Alonso eta Adei Tolosaren lanak irabazi du, *Uzturreko ezkutalekua* izenekoak. Tolosarren lanaren inguruan ondorengoa azaldu du epaimahaiak: «Aktibitate originala da. Grabaketak lur azpian egiteak zailtasun handiak ditu, eta txukun burututa dago. Erritmo ona du, eta kontatzen den istorioa erakargarria da. Arrisku bat du, hori bai: leku ezagun bat, ezagunegi egitea. Baina disfrutatu dezala jendeak!».

'Ibia' albumak saria jasoko du

Erredakzioa Tolosa

Enderrock musika aldizkariak antolatzen duen Premis de la Musica Catalanak 2019 urteko jazz album onenaren saria eman dio *Ibia* albumari. Disko honek Gorka Benitez saxo jotzaile bizkaitar-kataluniarra eta Migel Ze-

berio zuzendari tolosarrak sortutako izen bereko proiektuan du oinarria.

Gironako auditorioan egingo dute gaur, aurten 22. edizioa duen Premis de la Musica Catalanen sarituak izan diren musikarrien sari banaketa egiteko ekitaldia.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Tolosan. Interesa dutenek 688 888 207 telefono zenbakira deitu behar dute, eguerdian (11:00-14:00).

Lan eskaintza

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da. Esperientziaduna eta euskalduna izatea eskatzen da. Interesa dutenak, 647 446 363 telefono zenbakira deitu behar du.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak **iragarkilaburak.eus-en**

Bulandegi bidea berritzeko lanari ekingo dio udalak aurtan

Zizurkilgo Udalak 2020ko aurrekontua onartu eta ohiko gastuetara bideratutako diru saila handitu du, auzoetan egin nahi diren berriztatze lanak egin ahal izateko

Jon Miranda Zizurkil

Aurtengo aurrekontua prestatzen Zizurkilgo udal gobernuak egin duen «ahalegina» nabarmendu du Iker Urruzola alkateak: «Hurrengo urteetan jarraipena izango duten proiektuei hasiera eman nahi izan diegu aurtan». Egitasmo horietako bat da Bulandegi bidearena, berriztatze lanak fase ezberdinetan egingo baituzte. Uda aurretik egingo dute lehenengo zatia, Joxe Arregi plaza biribilguneko zebrabidera bitartekoa. Oinezkoentzat egokitu dute errepidearen zati bat eta zebrabidea zabalduko dute, oztopo arkitektonikoak ezabatuz. Aurtengo aurrekontuan, 90.000 euro jaso dituzte lan horiek egiteko.

Gaur egun, 8.000 eta 10.000 ibilgailu pasatzen da egunean Bulandegi bidetik eta trafikoaren parte handi bat astuna da. Biala Orain! plataforman bildutako herritarrek Zizurkilgoen saihasbide bat egiteko eskaera luzatu diote Gipuzkoako Foru Aldundiari baina ez dute, oraingoz, erantzunik jaso. Zizurkilgo Udala ere duela hilabete eta erdi bildu zen Bide Azpiegituretako sailarekin eta Urruzolak baieztatu du ez dutela saihasbidearen aldeko konpromisorik jaso. «Esan digute errepide hori ez dagoela lehenengo artean eta legealdi honetan behintzat ez dutela burutuko». Herritarren ezinegonaz kontziente da udala eta bidea haiekin batera egiteko konpromisoa azaldu du alkateak. Bien bitartean, Bulandegi bidea irisgarriagoa egiteko lanekin jarraituko dute hurrengo urtetik aurrera: «Datozen faseetan ingurunea egokitzeko segiko dugu eta trafikoa mantsotzeko neurriak hartzen ahaleginduko gara, bertatik pasatzen diren ibilgailuek jakin dezaten ez dela errepide orokor bat, herri barruko bidea baizik».

AURREKONTUA AHO BATEZ

Otsailaren 10ean onartu zuen Zizurkilgo Udalak 2020ko aurrekontua, 3.372.370 eurokoa, EH Bildu, EAJ eta PSE-EEren aldeko



Joxe Arregi plaza paretik biribilguneko zebrabidera bitarteko gunean egingo dituzte lehen egokitzapen lanak. IRATI SAIZAR.

botoekin. Iazkoa baino %4,2 handiagoa da eta kopuru hori guztia inbertsioetara bideratu beharrenden diru saila igo dute aurtan. Herri bideak konpontzen jarraitzeko, 47.000 euroko inbertsioa aurreikusiko dute, adibidez, baina aldi berean, ohiko gastuetatik, beste 27.000 euro bideratuko dira lan horietara. «Uste dugu zenbait lanek ezin dutela inbertsio puntual baten zain egon eta jarraipena behar dutela denboran. Egunerokotasunean jarri behar dugu indarra eta horretarako aurrekontuan gastu horiek aurreikusiko behar ditugu». Besteak beste, Akezko eta Ihartza auzoetan argiteria aldatuko dute aurtan eta zenbait lekutan eserlekuak aldatuko dituzte. Herrigunean argiterian aldaketak egingo dituzte, besteak beste, Intxaur frontoira 5.000 euro bideratuz.

Hala eta guztiz ere, Plaza Etxeberri etxearen erosketaren bigarren zatiak hartuko du aurrekontuan partidarik handiena. 200.000 euro bideratuko dira erosketak gauzatzera eta hurrengo

urtean ordainduko dute geratzen den zatia. Gastu mugaren arauari egin dio erreferentzia alkateak: «Garai batean udalak buru gabe zorpetu zirela argudiatuta ateratako arauak asko mugatzen gaitu inbertsio estrategikoei ekiteko unean. Ezin dugu mailegu handi bat eskatu eta aurreko urtean baino ehuneko txiki bat gehiago soilik gastatzen uzten digute». Hala ere, Urruzolak nabarmendu nahi izan du zorra murrizteko urteotan udalak egin duen ahalegina.

«Egunerokotasunean jarri behar dugu indarra eta aurrekontuan gastu horiek aurreikusiko»

IKER URUZOLA
ALKATEA

Urtea 641.504 euroko zorrarekin amaitzea aurreikusten du udalak, %19,4ko zorpetze mailarekin. «Lau urte hauetan, horrela jarraituz gero, %5eko mailara jaisteko aukera egongo dela uste dugu».

Plaza Etxeberri erostera bideratuko du aurrekontuaren zati

bat udalak, baina aldi berean Herribizigune taldeak eraikinaren inguruan abiatu duen gogoeta prozesuarekin jarraituko du. Gune horretan erabakiko da zein behar dauden herrian eta zein erabilpen eman ahal zaion Plaza Etxeberri. Urruzolak, aurreratu du, uda aurretik taberna-jatetxearen zerbitzuaren esleipenaren inguruko albisteak egongo direla. Oraingoz, zerbitzuaren kudeaketa bi aldiz atera dute lehiaketara eta bietan geratu da hutsik.

Bide batez, Karidadeko Bentan hutsik geratu den lokala larrialdi etxebizitza bezala egokitzeko asmoa du Zizurkilgo Udalak. Printzipioz, 5.000 euroko inbertsioa egingo dute espazioa egokitzeko.

ELBARRENA GUNE BIZIA

Elbarrena auzoan mugimendu handia dabil azken aldian alkatearen iritziz: «Ostatuek martxa ona dute, Danena taldean gazte asko dabilta, kultur etxean Loatzo musika eskolak eta Bukalaidantza taldeak eskolak ematen dituzte eta mugimendu handia dabil liburutegian». Atxulondo

kultur etxean egokitze, mantentze eta konpontze lanak egiteko 22.000 euro jarriko dituzte aurtan. Leihoak aldatuko dituzte kultur etxean, modu horretara, eraikinaren isolamendua hobetu eta energia aurreztuko dute.

Futbol zelaia berri zutenetik, Danena kirol elkarteak hedatze handia izan du herrian. «300 fitxa ditu klubak, populazio osoaren %10, gutxi gora behera». Erabile-ra masibo horrek eragina izan du futbol zelaiaren ondoko aparkalekuan eta zorua konpontzeko eta argiteria jartzeko 4.500 euro jarriko dituzte. Bide batez, Danenako aldagela zaharretan galdara aldatzeko 10.000 euro bideratuko dira.

Elbarrena inguruan, merkataritza sustatzeko partida bat ere sortu du udalak, ostalari eta dendariekin batera, zenbait ekimen aurrera eramateko. Dagoeneko hiruzpalau aldiz bildu da udala merkatariekin, eta elkarlanean, otsaila bukaeran bi saski zozkatu zituzten. «25 saltoki inguru daude herrian eta gure konpromisoa haiei hauspoa ematea da, merkatariekin Zizurkil gune erakargarri gisa ikus dezaten, beren negozioa bertan jartzeko».

Udal gobernuarentzat estrategikoak diren ekimententzako laguntzak ere txertatu dituzte aurrekontuan: «Esan izan dugu euskara eta feminismoa ardatz ditugula, Tolosaldeko Euskaren Mahaiarentzat eta Tolosaldeko Emakumeen Etxearentzat finantziazioa jaso dugu aurrekontuan». Joan den otsailaren 28an aurrekontuaren aurkezpen publikoa egin zuten Plazida Otaño liburutegian. «Berriak gara arduratu eta arduraz jokatu dugu aurtengo aurrekontua osatzeko. Udal sail bakoitzaren iritzia jaso dugu eta gure herri programan jasotakoak txertatzen saiatu gara. Prozesu honetan lehenengo markatu ditugu eta ariketa honek funtzionatzen duela ikusi dugu. Ahal bada, datorren urteari begira, parte hartzea zabaldu nahi genuke eta diru kantitate bat jarri herritarren esku, zertan inbertitu erabaki dezaten».

Aurrekonturako proposamenak luzatzeko epea zabaldu dute Iruran

Martxoaren 28ra arte udaleko harrera bulegoan, udalaren webgunean, telefono mugikorrean jasotako formularioan eta jarri diren postontzietan egin daitezke proposamenak

Erredakzioa Zizurkil

Irurako Udalak 2020an 30.000 euro erreserbatu ditu herritarrek egindako proposamenekin inbertsioak egiteko. Aurkeztutako proiektu hauek irurarren interes orokorrari erantzun beharko diote. Gainera, udalaren konpetentzia izatea, teknikoki bideragarria, aurreikusitako diru kopuruarekiko bateragarria eta inbertsio izaera edukitzea dira proposamenak bete beharko dituen baldintzak.

Udalak martxoaren 28an egingo den bileran jarri du arreta. 11:00etatik 13:30era egingo da eta norberak bere proposamenak beste herritarrekin konpartitzeko aukera izango du. Balorazio mahaiaren emaitzak publiko egin eta gero herritarrek proiektu ezberdinen inguruko infor-

mazioa jasoko dute eta azken erabakia bozketa bidez ebaztuko da. Modu presentzian egingo da apirilaren 23an eta 24an harrera bulegoan (09:00 - 14:00) eta apirilaren 25ean herriko eskolako gela borobilean (11:00 - 13:00).

Boto gehien lortu dituen proiektua exekutatu beharko du derrigor udalak. Proiektu irabazlea exekutatzeko prozesu honetara bideratutako kopuru osoa ez gastatzea suposatuko balu, boto emaitzen hurrenkera jarraituta proiektu gehiago exekutatu dira, 30.000 euroko kopurua amaitu arte, beti ere irabazi ez duten proiektuen boto kopuruaren artean %10eko babesa lortu badute gutxienez.

Beste proiektuek botoen portzentaje hori eskuratuko ez balute, udalak erabakiko luke geraki-

na zein inbertsionetara bideratu. Udalaren esku egongo da, era berean, irabazlea izan den proiektuaz gain besteren bat exekutatzeko nahiz eta 30.000 euroko kopurua gainditu, aurreko irizpide guztiak beteta. Aukeratutako proiektuen exekuzioan herritarren partaidetza bermatzeko formulak bilatuko dira eta prozesu guztiaren informazioa zabalduko da Irurako webgune zein Irurako Udalak bere eskura dituen kanal guztietatik.

Udalak bere komunitatean herritar «konprometitua» sortzea lortu nahi du prozesuarekin: «Elkarlana eta lankidetzaren, gardentasuna, lehenetsunak markatzea, aniztasun inklusiboa, talde edo komunitate ikuspegia, erabakiak hobetu, zilegitasuna bermatu eta harreman molde berriak sortzea da gure asmoa».

Errigora kanpainarekin bat egiteko aukera

ZIZURKIL // Zizurkilgo Herribizigune elkarteak bat egin du Errigora kanpainarekin. Hori dela eta, Zizurkildik bertatik eskaerak egiteko eta produktuak herrian bertan jasotzeko aukera jarri du martxan. Eskaerak Plazida Otañon, udal bulegoetan eta Iriarte tabernan egin ahal izango dira, martxoaren 12ra arte.

Udal jabetzako lau garaje alokairuan hartzeko aukera

ANOETA // Udal jabetzakoak diren Iturtxulo kaleko 4. eta 6. zenbakian kokaturiko lau garaje ireki alokairuan hartzeko aukera zabaldu du Anoetako Udalak. Interesa duten herritarrek, izena eman beharko dute udal bulegoetan eta horretarako azken eguna martxoaren 12a izango da, datorren osteguna.

Autodefentsa Feminista lantegiak eskainiko dituzte

ALKIZA // Emakumeek indarke-riarekiko dituzten bizipenak konpartitu eta eraso sexistaren erantzun egoki bat ematen ikasteko lantegiak izango dira martxoaren 7an, 14an eta 21ean, 10:00etatik 14:00etara kultur etxean. Lantegiak dohainik eskainiko badira ere, aldeztu izena eman behar da.



Alex Inzari jantziko diote txapela aurtengo Txapel Egunean. ATARIA

Alex Inza omenduko dute aurtengo Txapel Egunean

Martxoaren 14an ospatuko dute festa eta afalostean Egarrri tabernako nagusiari jantziko dio txapela, Alatzne Etxaburuak, iazko txapeldunak

Erredakzioa Irura

Zizurkilgo jai batzordeak labur jakinarazi du, zergatik jantziko dioten txapela Alex Inzari: «Bera bezalako pertsonen garrantzia berezia dute herri bat, komunitate bat egiterakoan. Egarrriko Alexek etxean sentiarazi ditu Egarrira sartu diren zizurkildar oso ezberdinak, izan Elbarrenakoak zein herrigunekoak, gazteak, helduak zein adinekoak. Beti dago prest, gainera, herri ekimenean laguntzeko, festetan edo bestelako ekimenean».

27. edizioa duen Txapel Egunean helburua ez da inoiz izan «lorpen handiak goratzea», herri giroan garrantzia duten horrela-

ko herritarrak aitortzea baizik. Horregatik Zizurkilgo jaiak antolatzea helburu nagusi duen festa batzordeak herrigunetik harago begiratu nahi izan du aurtengo txapela jartzerakoan eta zizurkildar guztiekin «tratu atsegina izaten hamarkadak daramatzan Alex Inza herritarrari» jarriko diote txapela.

Martxoaren 14ko afarirako txartelak 22 euroan salgai izango dira Iriarten bertan eta Egarrin, datozen egun hauetan. Afalostean, Alatzne Etxaburuak iazko txapeldunak jarriko dio txapela Alex Inzari, eta honenbestez bera izango da 2020ko jaien hasierako txupinazoa botako duen pertsona.

EGITARAUA

Martxoak 14, larunbata

16:00. Txapeldunen mus lehia zentroan.

17:30. Bukalai dantza taldearen emanaldia ltxaur frontoian

20:00. Trikitilarekin eta Haritz Mujika eta Amaia Agirre bertsolariekin poteoa.

21:00. Txapeldunen afaria Iriarte ja-tetxean.

R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA
20150 ADUNA, GIPUZKOA,
BASQUE COUNTRY, SPAIN

INFO@RZABALA.COM

PHONE NUMBER
0034 943 69 07 74

WWW.RZABALA.COM

**EGUNERO IREKITA IGANDE
GAUAK IZAN EZIK**

**OSTIRALA, LARUNBATA ETA
IGANDE EGUERDITAN IREKITA**

Alegian Eskola Publikoarekin «harro» daudela erakutsi dute

‘Euskal Eskola Publikoaz harro!’ lelopean martxan jarri den kanpainarekin bat eginez, argazkia atera dute Alegiako Herri Eskolako ikasle, guraso eta irakasleek

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Euskal Eskola Publikoaren Aldeko plataforma sortu da, eta kanpaina bat abiatu dute *Euskal Eskola Publikoaz harro!* lelopean. Alegiako Herri Eskolako komunitateak bat egin du deialdiarekin, eta, atzo, argazkia atera zuten eskolaren atarian. Bertan, eskolako ikasleak, gurasoak eta irakasleak elkartu ziren. Kanpaina plataformatik sortu badute ere, bere egiteko eskatu diete irakasle, ikasle eta familia guztiei. Jasotako atxikimenduekin mobilizazio erraldoi batean bilakatu nahi dute.

EAeko ikastetxe, eskola, Haurreskola eta laguntza zentro guztiekin jarri nahi dute harremanetan. «Hezkuntza publikoa, historian zehar irabazitako lorpenik handienetako bat da, eta bere garapena gizarte honetan bizi garenon berdintasun eta ongizate mailako adierazlerik onena», dela uste dute. «Hezkuntzarako eskubidea, beraz, Eskola Publikoan gauzatu da, denontzat erakia, denona delako eta guztiontzat. Zerbitzu publiko doakoa eta unibertsala eskaintzen duen bakarra», diote. Eta tinko sinesten



Alegiako Herri Eskolaren aurrean elkartu ziren argazkia ateratzeko. E. MAIZ

dute, «hezkuntza publikoaren balioa, hezkuntza inklusiboa, euskalduna, laikoa eta doakoa, aniztasunean eta hezkidetzan konprometitua, berdintasunean eta kalitatean oinarritutakoa, ikasle guztien hezkuntza integrala eta gizarte kohesioa bermatzen dituen» izan behar duela.

Zerbitzu publikoak, eta bereziki, Eskola Publikoa gobernuen jomugan daudela azpimarratzen dute plataformatik: «Azken urteotan, zerbitzu horien pribatiza-

tze politika garbia eraman da aurrera, eta hezkuntza ez da atzean geratu. EAEn, orain arte izan diren Hezkuntza Sailek Eskola Publikoari murrizketak ezarri, eta irakaskuntza ekimen pribatu guztiei kontzertazioa eman diete».

«Irakaskuntza pribatuko patronalek askotan eskatu duten Hezkuntza Lege berri bat aurrera atera nahi du Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza publikoko komunitate osoaren oposizioare-

kin», argitu dute. Ikasleen Guraso Elkarte guztiak eta irakaskuntzako sindikatu guztiak aurka daudela diote.

Atxikimenduak biltzen jarraitu nahi dute: «Kezkatu egiten gaitu Eskola Publikoaren aldeko administrazioaren inplikazio ezak, horregatik uste dugu premiazkoa dela kalitatezko Euskal Eskola Publiko baten aldeko apustua egitea, izan ere, euskal hezkuntza sistemaren ardatz funtsezkoa eta lehenasunezkoa da».

Euskal Herriko Mus txapelketako finalera, 10 bikote

Martxoaren 14an jokatu da Euskal Herriko XII. Mus Txapelketako finala, Araban; eskualdeko hamar bikote joango dira

E. Maiz

Euskal Herriko XII. Mus Txapelketako finala hilaren 14an, larunbatean, jokatu da Arabako Zigoitiko Gopegi herrian. Pasa den asteburuan jokatu ziren herrialdeetako kanporaketak, eta eskualdeko hamar bikote dira final handirako sailkatu direnak.

Seguran jokatu zen Gipuzkoako kanporaketa, eta Gipuzkoatik sailkatutako 118 bikoteraren artean jokatu ziren partidak. Horietatik 32 baino ez dira sailkatu Euskal Herriko XII. Mus Txapelketako finalera. 32 bikoteraren artean, hamar bikotek eskualdea ordezkatu dute.

Segurako kanporaketan honela sailkatu ziren eskualdeko bikoteak: seigarren postua lortu zuten Xabi Goikoetxea eta Urko Otamendi amezketarrek. Zortzigarren eta bederatzigarren postuak alegiarrentzat izan ziren,

Aitor Murua eta Gorka Altuna, eta Ander Telleria eta Ibon Apaolazarentzat, hurrenez hurren. Hamaikagarren bikotea izan zen Igor Urkola eta Mikel Larrion anoetarrek osatua. Aritz Mujika eta Mikel Beloki berastegiarrek hamabosgarren postua eskuratu zuten, eta hogeigarrena Ikaztegieta Andoni Egia eta Unai Iraolarentzat izan zen. Atzetik, Juan eta Unai Kortajarena larrauldarrek sailkatu ziren. Hogeita zortzigarrenak Illart Lasa eta Beñat Eizagirre tolosarrak izan ziren. Eta azkenik, hogeita hamar eta hogeita hamabi postuak, Eneko Iturbe eta Lander Etxeberria billabonatarrentzat eta Zizurkilgo Naroa Geresta eta Garikoitz Ugartemendiarentzat.

Euskal Herriko 128 bikoteraren artean jokatu da Euskal Herriko XII. Mus Txapelketa. Arabatik eta Behe Nafarroatik hemezor-

tzina bikote sailkatu dira; Bizkaitik hamar; Lapurditik hamabi; Zuberoatik sei; eta Nafarroatik eta Gipuzkoatik hogeita hamabina bikote.

Mus jokalariek 09:30erako egon beharko dute Gopegin, 10:00etan partidekin hasteko.

Whatsapp taldea, interes orokorreko mezuak idazteko

Bidania-Goiazko Udalak informazioa modu zuzen eta azkarrean emateko baliatuko du; orri bat bete behar da taldean sartzeko

E. Maiz Bidania-Goiaz

«Interes orokorra duen informazio, ohar, agenda eta emergentziak herritarrei modu zuzen eta azkarrean helaraztea» dela asmoa azaldu du Bidania-Goiazko Udalak. Herriko whatsapp taldea sortu dute, eta taldea herrian errolatuta dagoen 18 urtetik gorako edozeinentzat da. Taldean sartu ahal izateko, berriz, bakoitzak dokumentu bat bete behar du, eta udaletxean entregatu. Zenbakia sartzeko baimena emateaz gain, bertako puntuak onartu beharko ditu norbanako bakoitzak.

«Herritarrek ere idazteko ahalmena izango duzue, beti ere, interes orokorra duten mezuak idatziz: oharra, elkarten agendak, deialdiak, emergentziak, ...», azpimarratu dute udaletik. Era berean, lau puntu zehaztu dituzte: mezu guztiek Bidania-Goiazko eta herritarrentzako interes orokorra izan beharko dute; ez da eztabaida talde bat, mezuak ez dira erantzun edo eskertu beharko; errespetuz jardun beharko da beti, ezberdina errespetatuko duen herrigintzarako talde bat da; eta udaletxean egin beharreko eskaera edo kexa guztiak, orain arte bezala egin beharko dira, Whatsapp talde honek ez du betebeharr legalik izango.

Jakinarazi dute etxeko banaketa orain arte bezala mantenduko dutela.

harpidedun izateak badu saria

ERRIGORA proiektuko 3 saski

Udaberriko kanpainarako egin zure eskaera. Otsailaren 27tik martxoaren 12ra. www.errigora.eus

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** edo sartu ATARIAko ZOZKETAK atalean. Parte hartu hilabete honetan, martxoaren 2tik, martxoaren 16ko 12:00ak arte. Saridunen izenak martxoaren 17an, asteartea, argitaratuko ditugu.

Lehen greba eguna Voith-en, Ertzaintzaren presentziarekin

Voith Paper SA enpresako langileek sei greba egun deitu zituzten, eta atzo egin zuten lehena; bihar bilera egiteko deia jaso dute langileek, zuzendaritzaren aldetik



Grebalariaiek enpresaren atarian, atzo goizean, polizia parean dutela. A. IMAZ

Asier Imaz

Voith-eko langileek greba eguna zuten atzo. Enpresaren aurrean 07:00etan elkartu ziren, eta «ezusteko gonbidatuak» izan zituzten: polizia operatibo bat aurkitu zutela adierazi zuten langileek: «Inongo beste enpresetan ez dugu ikusi horrelakorik. Dirudenez eskualdeko altxortzat duten Voith horrela zaindu nahi dute. Erabat soberan dago». Ertzaintzaren presentzia aurrean izanagatik, elkarretaratzearekin jarraitu zuten grebalariaiek.

Produkzioa geldirik zegoela esan zuten: «Tailerrean hiru eskirol besterik ez daude, baina haien jarrera ere ulertzekoa da. Entxufe bidez sartutako jendea da, familia dute hor agintzen eta

bidesaria ordaindu beharrean daude. Bulegoan lau edo bost ikusi ditugu, eta behean ez dira askoz gehiago», azaldu zuen enpresa batzordeak.

Ertzaintzak sarreran izanagatik, goizean enpresara sartzen utzi zitelako azaldu zuten grebalariaiek: «Informazioa banatzeko ez dugu inongo arazorik izan. Ez gara joan gure lankideekin konfrontazio bila, aldarrikapen justu bat egitera baizik. Asanbladan langileen gehiengoak grebaren alde egin zuen. Batzuk demokraziaz hitz egiten dute, baina komeni zaienean bakarrik egin behar zaio kasu gehiengoari. Horrela funtzionatzen dute».

Prekarietaterik ez lelopean, langileak txistu egiten aritu ziren. Aldarrikapena argi dute:

«Urte eta erdi goaz hitzarmena negoziatzen. Urte eta erdi iraungita dagoen hitzarmena da, aldi berean. Negoziazioetan enpresaren jarrera salagarria izan da, planteamendu ezberdinak eta aldakorak eginez bilera bakoitzean ezer zehaztu gabe. Orain desadostasun puntu nagusia soldata arrakalan dago. Hemen batzuk izugarrizko soldatak dituzte eta besteek baxuak. Hori hobetu nahi dugu, baina zuzendaritzaren jarrera erabat itxia da».

Bihar bertan bilera egiteko deia jaso dute langileek, zuzendaritzaren aldetik. Adostasunik ezean, Voith Paper SA-ko langileek greban jarraituko dute, gutxienez, beste bost egunez: martxoaren 11n, 17an, 18an, 25ean eta 26an.

Ikaztegieta abestuko du Ane Zubia ibartarrak

Bihar iluntzean jokatuko da Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa, Ikaztegieta

Erredakzioa Ikaztegieta

Pasa den asteburuan abiatu zen Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, Oñatin. Eta bigarren kanporaketa bihar jokatuko da Ikaztegieta Herrigintza Elkartean. Bertan, Gipuzkoako sei bertsolari hartuko dute parte eta tartean izango da Ane Zubia ibartarra. Saioko irabazleak apirilaren 3an Lasturren izango den finaleko txartela lortuko du eta besteek azken saioan jakingo dute finalea pasako diren edo ez.

Bere lehenengo parte-hartzea du Ane Zubiak aurtengoa. (H)ari Naizela irratsaioan aipatu duenez, bere helburua «bertso eskolan egiten duen horretara hurbiltzea izango da eta ahal den heinean, saioaz gozatzea».

Kanporaketa bertso afari for-



Ane Zubia eta Oibar Olan. ATARIA

matuan izango da, 20:00etan, eta afarirako txartelak salgai daude www.bertsosarrerak.eus web orrian, gaur eguerdira arte.

ESKUALDEKO LAU

Oibar Olan, Beñat Mateos, Ane Zubia eta Jon Mendiluzek hartu dute parte txapelketan. Lehen biek Oñatiko kanporaketan abestu zuten; Maide Garmendia zaldibiarra izan zen saioko irabazlea. Mendiluzek Ereñotzun abestu beharko du, martxoaren 13an.

Taloak jateko aukera izango da Elduaingo Urdelar biltokian

ELDUAIN // Urteroko ohiturari eutsiz, talo jatea antolatu dute larunbat honetan Elduainen. Urdelar biltokia baliatuko dute hitzordu horretarako, eta 19:30etik aurrera herritar guztiei dei egin diete bertaratzeko. Taloak janez gozatu nahi duen orok aurrez izena eman beharko du biltokian bertan.

Karme Gurrutxaga psikologoak hitzaldia emango du Berrobin

BERROBI // Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Berrobiko Udalak hainbat jardueratan antolatu ditu. Gaur, 18:00etan, Esther Poveda aktoreak emango dio hasiera programazioari. Jarraian, Karme Gurrutxaga psikologoak hitzaldia eskainiko du: *Empoderándonos desde casa: ¿Cómo hemos perdido el poder?*.

Hilberriak eta urteurrenak

ATARIAn jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Lehen garaipena bolada txar baten ondoren

Jaitsiera postuetatik atera da Hirugarren Mailako Tolosa CF-ko taldea, aurkari zuzena den Deustori irabazita

I. Garcia Landa Tolosa

Aurreko lau partida galdu eta gero, Tolosa CF-ko Hirugarren Mailako taldeak garaipena lortu zuen azken jardunaldian. Partida garrantzitsua izan da, jaitsiera postuetatik ateratzeko balio izan duelako eta hiru puntuak aurkari zuzena den Deusto taldearen aurka lortu dituztelako. «Arnasa hartzeko balio izan du», esan du Ander Avellaneda entrenatzaileak, «buruari freskotasan pixka bat emateko, eta mutilek euren buruan duten konfiantza igotzeko».

Tolosarrek 2-1 irabazi zuten partida. «Lehenengo zatian ez ginen ondo aritu. Azken partidetan, nahiz eta ez irabazi, taldean oso ondo zegoen zelaian eta oso ondo ari zen lehiatzen», esan du entrenatzaileak. «Bigarren zatian oso ondo sartu ziren jokalariek. Gure unerik onenean, penaltia adierazi zuten gure kontra, eta galtzen joan ginen, baina

jokalariek ez zuten etsi, sinesten eta lanean jarraitu zuten, eta saria lortu genuen bukaeran».

Avellanedak Hirugarren Mailan markagailuari buelta eman eta irabazteak duen meritua nabarmendu du: «Horrek erakusten du mutilek lanean eta borrokan daramatzatela urte osoan. Aurtengo maila oso gogorra da, eta aurkaria aurretik jartzen denean, buelta ematea oso zaila da. Zoriontzekoa da jokalariek egin zutena».

Azken hiru taldeak jaisten dira denboraldi amaieran, eta orain azken laugarren doa Tolosa CF, 17. postuan, 26 punturekin. Hori bai, 13. doan Real Sociedad C taldea bost puntura dute, eta oraindik 11 jardunaldi falta dira liga amaitzeko. «Maila honetako erakutsi du berdintasun handia dagoela», esan du Avellanedak. «Batetik goiko postuetan daudenak, eta gero 12. postutik behera gaudenak borroka handia dugu. Bederatzi partida irabazi gabe izan gara egon ondoren, partida bat irabazi dugu eta jaitsiera postuetatik atera gara. Beraz, lanean jarraitu behar dugu gure helburua lortzeko, hau da, Hirugarren Mailan jarraitzeko».

Urrezko kirolarien txapelketen finalak, larunbatean jokoan

Erredakzioa

Herri kirolarien topaleku izango da, larunbatean, Azpeitiko Izarraitz pilotalekua. 18:30ean hasiko den jaialdian, hainbat txapelketetako finalak jokatuko dira, eta eskualdeko bi aizkolarizango dira lehian: Jexux Mari Mujika ibartarra eta Unai Zabala txararra.

Mujikak Urrezko Binakako Aizkolariz Txapelketako finalean parte hartuko du. Iker Vicente da bere bikotea, eta aurkari Mikel Larrañaga eta Jon Rekondo bikoa eta Ugaitz Mugertza eta Ju-

len Alberdi Txikia IV.a bikoa izango dira.

Zabalak 23 urtez azpiko Urrezko Binakako Aizkolariz Txapelketaren finalean ariko da, bikoa Hodei Ezpeletarekin osatuz. Aurkariak Ioritz Gisasola Zelai IV.a-Suhari Rodriguez eta Julen Larrea-Jokin Urretabizkaia Basozabal izango dira.

Bi final horiez gain, Emakumezkoen Urrezko Binakako Aizkolariz Txapelketarena, Urrezko Harri-jasotze Txapelketarena, eta 19 urtez azpiko Urrezko Binakako Aizkolariz Txapelketarena izango dira jokoan.

Denboraldiaren une erabakigarrian sartu dira

Tolosa CF-ko 1. Maila Nazionaleko taldea jaitsiera postuetan dago, eta zazpi jardunaldi falta dira

Imanol Garcia Landa Tolosa

Liga txapelketaren zati erabakigarrian sartu da Tolosa CF-ko 1. Maila Nazionaleko futbol taldea. Une honetan hamabigarren postuan dago, hau da, azken hirugarrenen, 15 punturekin. Jaitsiera postuetan dago taldea, azken hirurak jaisten baitira, eta zazpi jardunaldi falta dira liga amaitzeko. Asteburuan Mulier taldearen aurka partida garrantzitsua izan zuten, banako berdinketarekin amaitu zena. «Gure aurretik bi puntura geneukan, eta irabaziz gero aurretik jartzen ginen eta jaitsiera postuetatik kanpo», esan du Imanol Cabero entrenatzaileak.



Tolosa CF-ko 1. Maila Nazionaleko taldea. ASIERIMAZ

Asteburu honetan atsedent hartzen du ligak, eta hurrengo asteburuan dute jardunaldia. Atletico Revellinen aurka dute. «Oso garrantzitsua izango da, guretik lau puntura baitago, eta etxean jokatzeko dugu. Zaleen laguntza ere garrantzitsua izango da», esan du Caberok. «Gainera Mulier eta Logroño taldeek jokatzen dute jardunaldi horretan, hau da, gure gaintetik eta gure atzetik dauden taldeak. Beraz, jaitsiera postuen inguruan gabil-

tzan lau taldeen arteko norgehiagoka zuzenak izango dira».

Falta diren zazpi partidetan, azkenaldian duten dinamikarekin jarraitu nahi dute: «Azken lau partidetan sentsazio hobekak ditugu. Orain puntu gehiago lortzea falta da. Ikusten dugu partida bat irabaziz gero jaitsiera postuetatik atera gaitezkeela, eta horri eutsi nahi diogu. Mailari eustea zen gure helburua denboraldi hasieran, eta hori lortuz gero saria izango zen guretzat».

1. Maila Nazionalean segi nahi dugu



Aulkitik Eneritz Itxaso
Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

nauterien astea igaro ondoren Mulierren aurkako partida iritsi zen. Partida hau guretzako oso garrantzitsua zen, izan ere, irabaziz gero beheko postuetatik aterako ginatke eta salbazioan geratu. Horretarako astean zehar hiru aldiz entrenatu genuen partida prestatuz. Denok 3 puntuak nahi genituen, ondo hasi ginen eta partidako lehen gola sartzea lortu genuen falta batez: Iزارo Goenagak lortu zuen markagailua irekitzea. Atsedendira 0-1 joan ginen, eta sentsazio onak eduki genituen partidaren zehar. Baina markagailua 1-lekoa jartzea lortu zuen Mulier taldeak, penalti

baten bidez. Minutuak pasatu ahala urduri jartzen hasi ginen, eta aldaketa baten ostean 10 jokalarirekin geratu ginen, jokalaria bati txartel gorria atera ziotelako. Nahiz eta bat gutxiago izan, gogor borrokatu genuen gola sartzeko baina ezin izan genuen lortu. Partida 1-1 bukatu zen eta puntu bakarra eraman genuen etxera.

Nahiz eta bolada hau horrela segi, irabazi gabe, gogor jarraituko dugu maila honetan mantentzeko.

Asteburuan ez dugu jardunaldirik. Martxoak 14-15eko asteburuan jokatuko dugu Berazubini At. Revellin errioxarren aurka.

BILLABONA F.K.E.	
Arratzain futbol zelaia	
INFANTIL TXIKI MAILA	Larunbata 7, 10:00etan
BILLABONA F.K.E.	HONDARRIBIA F.E.
ORRIZKO KADETE MAILA	Larunbata 7, 11:45etan
BILLABONA F.K.E.	OSTADAR F.T.
1. JURENIL MAILA	Larunbata 7, 16:00etan
BILLABONA F.K.E.	EKINTZA K.E.
PREFERENTE MAILA	Igandea 8, 16:30etan
BILLABONA F.K.E.	ALOÑA MENDI K.E.

zozketak

Atarikideentzat lau sarrera ditugu

Erlauntza antzezlanaren sarrerak Martxoak 6, 20:30etan, Leidor antzokian.	Hansel eta Gretel sarrerak Martxoak 7, 18:00etan, Topic zentroa.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus



OSTEGUNA, 2020KO MARTXOAK 5
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Ekuain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 05

AGENDA

Deialdiak

Aduna. Sexijentziak bakarrizketa saioa, liburutegian, 19:00etan.
Alegia. Soñando con alas dokumentala, zineman, 19:00etan.
Altzo. Mundu mina hitzaldia, Agurtzane Belauntzararekin, 19:30ean.
Amezketeta. Kantu-poteoa, Arkaizpetik hasita, 19:00etan.
Anoeta. Ipuin kontaketa. 6-9 urte bitarteko haurrentzat. Ana Apika. Emakumeak = Kontatzen. 18:30ean, liburutegian.
Berrobi. Ester Poveda aktorearekin ekitaldia. Ondoren, Karmele Gurrutxaga psikologoaren hitzaldia: Empoderándonos desde casa, 18:00etan, udaletxean.
Irura. Ah! Nolakoa neska! gaztetxentzat ipuin kontaketa saioa, Bego Alabazarekin, liburutegian, 17:00etan.
Tolosa. Tapiz Fisior programari buruzko aurkezpen tailerra, Inmakulada Lanbide Ikastolan, 17:00etan.
Tolosa. Zine forum saioa: Una gran mujer, 19:15 eta 21:45ean, Leidorren.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, solasaldia helduekin, Tolosaldea LHko administrazioko ikasleen atala letren errepublikari eta eskualdeko musikarientzako proposamen musikala.
11:00. Eutsi Goiari. Kirolak.
12:00. Entzuteko jaiak. Musika.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
21:00. Mestibull. Musika DJ Bullekin.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larramendi kalea, 6 behea 1. 943 67 51 18.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Harri salda
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Urrutiajunbe
22:30. Ezetz asmatu (Allende-Salazar ikastetxea)
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko


EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro euritsu eta kaxkarra. Fronte batek eta iparmendebaldeko haizeak euri-giroa eta tenperaturen beherkada ekarriko dituzte. Tenperatura ez da 9-11 gradutik pasako eta elur-maila 1.000 metroan kokatuko da.

Bihar. Egun osoz zerua estalirik egongo da eta euri zaparradak sarri eta mardul botako ditu, non tarteka ekaitzak jo eta kazkabar txikia ere bota dezakeen. Tenperatura ez da 6-8 gradutik pasako eta elur-maila 500 metrora ere jaitsi daiteke puntualki.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



Itxura berria izango du biharko Ataria astekariak. ATARIA

Azal berria, mamiari heltzeko

TOLOSALDEKO ATARIA-ren astekariak jauzia emango du bihar, itxuraldatuta iritsiko baita Atarikideen etxeetara; diseinu berria izango du eta herritarrak izango ditu protagonista

Erredakzioa Tolosa

TOLOSALDEKO ATARIA-k beste jauzi bat emango du bihar. Astekariaren diseinua aldatu da eta itxuraldatuta iritsiko da Atarikideen eskuetara. «Astekaria, orain arte bezala, patxadaz irakurtzekoa izan behar dela uste dugu, eta diseinu berria horretara bideratu dugu. Zuritasuna bilatu dugu eta testuak irakurterrazak izatea nahi dugu, bai lehen begiratu batean, eta baita kazetaritza aldetik

ere, landutako gai buruzko informazio osagarria emanaz», esan du Naiara Roldan de Aranguiz astekariko koordinatzaileak.

ATARIA-k kolaboratzaile sare zabala du eta hori indartzea ere bada bere erronketako bat. «Orain arteko sarea mantendu dugu, eta kolaboratzaile berriak lotu. Iritziak, bertsoak, poesiak... idatziko dituzte, baina begirada grafikoari lekua egin nahi izan diogu eta bertan parte hartuko

dute hainbat diseinatzaile grafikok, artistak, argazkilarik...».

Edukiari dagokionez gai nagusi bat lantzen jarraituko du ATARIA-k, baina gai nagusiaz gain herritarrak izango dira protagonista astero-astero. «Agenda indartu nahi izan dugu ere, eta kultur agendari lotutako elkarrizketak argitaratuko ditugu». Itxura berria izango du aurrerantzean astekariak, baina orain arte bezala eskualdeko herritarrak izango ditu protagonista.



ataria
argazki lehiaketak

Mozorro hoberearen bila



R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS



ALDEKOA

Suite Baztan saria:
 Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
 Jakuzidun logela eta gosariekin
 Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
 948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia

Lau pertsonarentzako otordu bat
 Zabala sagardotegian
 Goiburu auzoa, Aduna
 • 943 69 07 74 • rzabala.com
 ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



LURLAN
 BASERRITIK ZURE ETXERA
 DEL CATERING Y TIKERIA

Bi lagunentzako bi afari
 Lurlan Bistrot dendan.
 Plaza Berria 2, Tolosa
 • 943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria